

PROBA ESPEZIFIKOA

2024ko PROBA

GEOGRAFIA

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2024ko MAIATZA


PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2024

GEOGRAFIA

GEOGRAFÍA

1. Iruzkindu, alderatu eta kontrastatu irudi hauek (2,5 puntu)



ign.es. Proyecciones cartográficas (CC BY 4.0)

2. Garatu gai hau (3 puntu)

- Espainia Europar Batasunean

3. Aukeratu 3 termino hauen artean, eta definitu (1,5 puntu, guztira):

- Naturagune babestua
- Migrazioak
- Barne-produktu gordina (BPG)
- Masa-turismoa
- Per capita errenta
- Ongizate-estatua



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2024ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2024

GEOGRAFIA

GEOGRAFÍA

4. Azter ezazu mapa hau: “Espainiako lurralde-antolamendua” (3 puntu)



https://www.ign.es/espmap/spain_b



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2024ko MAIATZA


PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2024

GEOGRAFIA

GEOGRAFIA

1. Iruzkindu, alderatu eta kontrastatu irudi hauek (2,5 puntu)



ign.es. Proyecciones cartográficas (CC BY 4.0)

Bi proiektzioak Lurraren gainazal kurbatua plano batean irudikatzeko erabiltzen diren teknikak dira, baina zenbait alderdi geografiko distortsionatzen duten moduan desberdinak dira. Hona hemen haietako bakoitzari buruzko zenbait ohar:

Mercator-en proiektzioa:

- Eremuen forma: Mercator-en proiektzioak eremuen forma gordetzen du, baina tamaina desitxuratzearen kontura. Horrek esan nahi du ekuatoretik hurbil dauden eskualdeak beren forma errealekiko leial agertuko direla, baina ekuatoretik urrunen dauden eremuak benetan diren baino handiagoak izango dira.
- Latitude- eta longitude-lerroak: Mercator-en proiektzioko latitude- eta longitude-lerroak zuzenak eta paraleloak dira, eta horrek erraztu egiten du nabigazioa eta itsas ibilbideen irudikapen zehatza. Hala ere, poloetarantz, lerroak bereizi egiten dira, eta horrek itxura okerra eman diezaioke eremu polarren tamainari.
- Erabilera nagusia: proiektzio hori asko erabiltzen da mapa nautikoetan eta nabigaziokoetan, nabigazio-lerroak lerro zuzenetan mantentzen dituztelako.

Peters-en proiektzioa:

- Eremuen kontserbazioa: Peters-en proiektzioaren ezaugarri nagusia eremuen kontserbazioa da. Horrek esan nahi du eskualdeen azalerak Lurrean duten tamaina errealearen arabera adierazten direla, baina formak desitxuratzearen kontura.
- Forma distortsionatua: formen distortsioa nabarmena da Peters-en proiektzioan, batez ere ekuatoretik gertu. Kontinenteen formak aldatu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2024ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2024

GEOGRAFIA

GEOGRAFIA

egiten dira, eta poloetatik hurbil dauden eremuek benetan diren baino askoz handiagoak dirudite.

- Ekitate-helburua: Peters-en proiektzioa herrialdeen irudikapen bidezkoagoa eskaintzeko diseinatu zen, gutxien garatutako eskualdeetako eremuak neurriz kanpo ager ez zitezen.

Konparazioa:

Bi proiektzioek helburu zehatzak dituzte: Mercator nabigaziorako aproposa da, eta Peters, berriz, eremuen irudikapen bidezkoagoa bilatzen ari da.

Mercator-en proiektzioak eremuak desitxuratzen ditu, baina formak mantentzen ditu; Peters-ek, berriz, formak desitxuratzen ditu, baina azalera mantentzen ditu.

Proiektzio horien arteko hautaketa maparen helburuaren arabera da. Forman doitasuna behar bada eta nabigazioan erabiltzen bada, Mercator egokiagoa da. Eremuen irudikapenean berdintasuna bilatzen bada, hobe da Peters.

Laburbilduz, proiektzio bakoitzak bere abantailak eta desabantailak ditu, eta haien arteko hautaketa mapa zertarako erabiltzen den, horren arabera da.

2. Garatu gai hau (3 puntu):

•Espainia Europar Batasunean

Nazioartean Espainiak eremu politiko eta sozioekonomikoan lotura estuenak dituen esparrua Europar Batasuna da.

Estatuaz gaindiko erakunde bat da, Europako estatu subirano eta independente batzuek osatua, eta beren subiranotasunaren zati bat erakunde komun batzuen esku uzten dute, denen intereseko erabakiak hartzeko, modu demokratikoan eta Europa mailan.

Gaur egungo Europar Batasuna Paris (1951) eta Erromako (1957) tratatuekin hasitako integrazio- eta zabaltze-prozesu luze baten emaitza da.

1957an sei herrialdek osatzen zuten (Frantzia, Alemaniako Errepublika Federala, Italia, Belgika, Herbehereak eta Luxenburgo). 1973an Danimarka, Irlanda eta Erresuma Batua elkartu ziren iparraldetik.

1981ean Grezia hegoaldetik gehitu zen, eta 1986an Espainia eta Portugal. 1995ean Suedia, Finlandia eta Austria sartu ziren. 2004an Estonia, Letonia eta Lituania, Polonia, Txekiar Errepublika, Eslovakia, Hungaria eta Eslovenia, Zipre eta Malta sartu ziren.

2007an, Errumania eta Bulgaria, eta, azkenik, Kroazia, 2013an.



GEOGRAFIA

GEOGRAFIA

2020an, Europako eremu komunitarioa lehen aldiz murriztu zen Erresuma Batuak (Brexit) utzi ondoren.

Gaur egun, 27 estatuk osatzen dute EB. Espainia 1986an sartu zen Europar Batasunean, negoziazio luzeen ondoren. Integrazioaren ondorioak hauek izan dira: politikan, Espainiak bere sistema demokratiko berria indartu zuen, eta Europar Batasunaren ohiko bazterketari amaia eman zion. Europarentzat, Espainiaren integrazioak kontinentearen hegoaldeko demokrazia finkatu zuen, eta Latinoamerikarekiko kanpo-harremanak erraztu zituen.

Ekonomiaren alorrean, Espainiak, sartu zenean, atzerapen nabarmena zuen Europar Batasuneko herrialdeen aldean, per capita BPGan eta lehiakortasun ekonomikoan, eta langabezia-tasa Europakoaren bikoitza zen.

Egoera horretan, Europar Batasunarekiko atxikimenduak ondorio positiboak eta negatiboak izan zituen: isolamendu-hamarkadak amaitu zituen, eta Espainiari merkatu bakar zabal batean sartzeko aukera eman zion. Espainia modernizatzeko eta lehiakorra izateko ahalegin handia egitera behartu zuen. Espainiak laguntza ekonomiko handiak jaso zituen Europar Batasunaren egiturazko hobekuntzak egiteko, batez bestekoa baino BPG askoz txikiagoa baitzuen. Laguntza horiei esker, Europako batez bestekoarekin bateratzen joan da pixkanaka.

Gizartearen alorrean, Europar Batasunak Espainiaren gizarte-modernizazioan lagundu zuen. Halaber, beste kideenen pareko ongizate-estatu bat sortzeko, gizarte-prestazioak nabarmen handituz eta osasuna eta hezkuntza unibertsalizatuz.

Kulturari dagokionez, Espainiaren integrazioak erraztu egin zituen kultura- eta zientzia-trukeak eta pertsonen mugikortasuna bidaiatzeko, turismoa egiteko eta ikasteko.

Gaur egun, Europako erdialdeko eta ekialdeko herrialdeak Batasunean sartu ondoren, Espainiak tarteko posizio ekonomikoa du. Herrialde horiek Europako inbertsio berriak erakartzen dituzte, Espainiaren kalterako, ez baitaude hain aurreratuak. Bestalde, Erresuma Batua Batasunetik irtetean (Brexit), EB eta Espainia herrialde horrekin negoziatzen ari dira, eremu guztietan eragina ahalik eta txikiena izan dadin. Espainiaren erronka sozioekonomiko nagusia da izandako krisien ondoren (2008ko krisi ekonomikoa eta COVID 19aren osasun-krisia) hazkundera eta enplegua berreskuratzea, Europar Batasunaren esparruan eta haren laguntzarekin.

3. Definitu termino hauek: (Aukeratu 3). (1,5 puntu, guztira):



GEOGRAFIA

GEOGRAFIA

•**Naturagune babestua:** Natura-ondarea (espezie mehatxatuak, ekosistema baliotsuak, interes bereziko paisaiak edo bestelakoak) zaintzeko neurri bereziak ezarri diren lurralde mugatua. Haietako bakoitzeko babesaren ezaugarrien arabera, hainbat izen izan ditzakete: parke nazionalak, parke naturalak, erreserbak, monumentu naturala, etab.

•**Migrazioak:** Biztanleriaren mugimenduak dira. Behin betikoak edo aldi baterakoak izan daitezke, tokikoak, eskualdekoak edo nazioartekoak. Leku batera iristen den pertsonari etorkin esaten zaio, eta emigratzaile, berriz, leku batetik ateratzen denari. Beraz, pertsona bat irteera-lekuko emigrantea da eta helmugako etorkina.

•**Barne-produktu gordina (BPG):** Herrialde batek biztanleko duen aberastasuna neurtzeko erabiltzen den adierazlea da. Horretarako, urtebeteko produkzio osoaren balioa urte horretako biztanle kopuruarekin zatitzen da. Kalkulua dolarretan egiten da, eta erosteko ahalmenaren parekotasunetan adierazten da.

•**Masa-turismoa:** 1960tik Espainian ezarritako turismo-eredu tradizionala. Baldintza klimatiko bikainetan eta hondartzen kalitatean oinarritzen da; horregatik, eguzki- eta hondartza-turismo ere esaten zaio. Penintsulako itsasertz mediterraneoan eta bi artxipelagoetan garatzen da nagusiki. Eskaintza zabala dute, erosahalten ertain edo txikiko bezero handientzat, zeinak batez ere tarteko kategoriako hotel eta apartamentuetan egoten baitira. Nazioarteko tour-operadoreen oso mende dago, eta, Kanaria uharteetan izan ezik, urtaroen oso mende dago, eta turistak udan kontzentratzen dira. Normalean, ez da hain zorrotza eta espezializatua izaten. 1990etik aurrera, eredu turistiko horren alternatibak bilatzen ari dira.

•**Per capita errenta:** Herrialde bateko biztanleen diru-sarrerren mailaren adierazlea da. Biztanleko errenta ere esaten zaio. Errenta nazionala herrialdeko biztanle-kopuruarekin zatituz lortzen da. Errenta nazionala biztanle guztien eta kontuan hartutako herrialdeko ekoizpen-korporazioek jasotzen dituzten diru-sarrerren batura da.

•**Ongizate-estatua:** Ongizatea aukera-berdintasuna da, gizartean desiragarritzat jotzen diren ondasun material eta ez-material guztietara hedatua. Ongizate-estatua eredu bat da, eta gobernu batzuek horren ardura hartu dute, besteak beste, hezkuntzan, osasunean, erretiro-pentsioetan eta langabeziaren estalduran doako zerbitzu publikoak bermatzeko. Premia bereziak dituzten taldeei ere laguntza eskaintzen die, hala nola desgaitasun fisiko eta psikikoa dituztenei. Ongizate-estatuak estatu batzuen aurrekontutik diru asko kontsumitzen duenez, krisi ekonomikoko garaietan politika neoliberalak



GEOGRAFIA

GEOGRAFIA

aplikatzearen mehatxupean dago, politika horiek ez baitute uste estatuak zerbitzu horien ardura hartu behar duenik.

4. Azter ezazu mapa hau: “Espainiako lurralde-antolamendua” (3 puntu)



https://www.ign.es/espmap/spain_bach.htm

1978ko Konstituzioak honela definitzen du Espainia: autogobernurako gaitasuna duten nazionalitatez eta eskualdez osatutako nazioa. Konstituzio-testuak ez zuen zehaztu zein izan behar zuten nazionalitate eta eskualde horiek, baina prozedura bat ezarri zuen horretarako: dauden probintzietatik abiatuta, probintzia batez edo bat baino gehiagoz osatutako autonomia-erkidego deritzenak eratu ahal izateko.

Konstituzioa onetsi ondoren, hiru urte baino gutxiagoko epean (1980 eta 1983 artean), lurralde nazional guztia autonomia-erkidegoetan antolatu zen. Prozesu horretatik, 17 komunitate atera ziren. Geroago, 1995. urtean, Konstituzioak eskaintzen zituen aukerekin bat, Afrikako iparraldean dauden Espainiako bi hiriek -Ceuta eta Melilla- hiri autonomoen estatutua eskuratu zuten.

17 autonomia-erkidegoek desberdintasunak dituzte, bai tamainari eta biztanleria-dentsitateari dagokienez, bai jatorri historikoei dagokienez. Haietako zazpi probintzia bakarrekoak dira, hau da, bat datoz Konstituzioaren aurreko mapa politikoko beste hainbeste probintziarekin. Hauek dira: Asturiasko Printzerria (lehen, Oviedoko probintzia); Kantabria (lehen, Santanderko probintzia); Errioxa



GEOGRAFIA

GEOGRAFIA

(lehen, Logroñoko probintzia); Nafarroako Foru Komunitatea (lehen, Nafarroa); Madrilgo Erkidegoa (lehen, Madrilgo probintzia); Balear Uharteak (lehen, Balear Uharteak); eta Murtziako Eskualdea (lehen Murtziako probintzia). Gainerako 10 autonomia erkidegoak probintzia anitzekoak dira, hau da, elkarren ondoan dauden bi probintzia edo gehiago dituzte.

Autonomia-erkidego batzuek jatorri historikoa dute, hau da, garai batean, gutxi gorabehera, barruti politikoak eratu zituzten lurraldeak dira, eta 1978ko Konstituzioaren aurretik zeuden Espainiako eskualdeen mapan. Haietako hiruk -Katalunia, Euskadi eta Galizia- autonomia politikoaren aitortzea ere jaso zuten II. Errepublikan (1931-1936). Beste batzuek, berriz, sustrai historiko-geografikoak dituzte, baina ez zuten autonomiarik izan errepublikaren garaian: Andaluzia, Aragoi, Asturiasko Printzerria, Kanariak, Nafarroako Foru Komunitatea, Valentziako Erkidegoa, Extremadura eta Balear Uharteak. Gainerakoetan, egoerak askotarikoak dira: Gaztela eta León Erdi Aroko León eta Gaztelako erresumen integrazioetik sortu zen, baina Logroñoko probintzia gabe (Errioxako Erkidegoa bihurtu baitzen) eta Santanderreko probintzia gabe (Kantabriako Erkidegoa bihurtu baitzen); Gaztela-Mantxa Gaztela Berriko probintziekin osatu zen, Madrilekin izan ezik, probintzia bakarreko erkidego bihurtu baitzen, eta Albacete elkartu zitzaion. Azkenik, Murtziako Erregioa probintzia bakar batez osatuta -Murtziakoa-, nahiz eta Albacetearekin lotuta egon 1978aren aurreko mapa politikoan.

Autonomia-erkidego guztiek autogobernurako gaitasuna dute arlo exekutiboan (bakoitzak bere gobernu autonomikoa du), legegintzakoan (parlamentuak dituzte, izen desberdinekin) eta haietako batzuk judizialean. Autonomia-estatutuek, duela gutxi erreformatu direnek edo erreforma-prozesuan daudenek, erkidego bakoitzaren egitura administratiboa ezartzen dute eta eskumenak garatzen dituzte, Konstituzioak ezartzen dituen mugen barruan.

Autonomia-erkidegoak probintzian eta udalerritan antolatzen dira. Baina, Konstituzioaren eta beren estatutuen arabera, batzuek beste administrazio-barruti batzuk ezarri dituzte; esaterako, eskualdeak. Hala gertatzen da Katalunian, Aragoian eta Galizian, eskualdea administrazio-lurralde gisa definitu baitute, berezko erakunde eta eskumenekin, eta eskualdeko mapak onartu baitituzte.

Espainiako zati handi baten lurralde-antolaketak eta haren adierazpen kartografikoak sustrai historiko oso zaharrak ditu, gehienetan Erdi Arokoak. Hain zuzen ere, historiak azaltzen du etenak edo enklabeak izatea, hau da, entitate administratibo baten muga edo zedarri jarraituetatik kanpo dauden sektoreak. Lurralde-gatazkak saihesteko, toki-erakunde guztiek beren mugapeak finkatzen dituzten ziurtagiriak izan behar dituzte.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK
2024ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS
MAYO 2024

GEOGRAFIA

GEOGRAFIA

Aldaketa asko izan dira historian zehar udal-antolamenduan. Gaur egun, bi prozesu kontrajarri daude: eremu despopulatuetan, pixkanaka-pixkanaka udalerrri kopurua murrizteko joera dago; biztanleria kontzentratu den eremuetan, berriz, administrazioa berrantolatu egiten da, kudeaketa eraginkorragoa lortzeko. Era berean, turismoaren gorakadak eta itsasertzeko guneeetatik urrun dagoen periferian urbanizazio handiak garatzeak udalerrri berriak sortzea ahalbidetu du kasu batzuetan.

PROBAREN GALDEREN ETA EZAGUTZA-BLOKEEN ARTEKO KORRESPONDENTZIA

GALDERA	EZAGUTZA-BLOKEA
5. Galdera	1. BLOKEA
6. Galdera	2. BLOKEA
7. Galdera	1. BLOKETIK 5. BLOKERA
8. Galdera	5. BLOKEA